

IKERKETA EGONALDI DEIALDIA:

**RACOR. ARTEAN,
ZIENTZIAN, TEKNOLOGIAN
ETA GIZARTEAN IKERTZEKO
EGONALDI-BEKA**

RACOR: ARTEAN, ZIENTZIAN, TEKNOLOGIAN ETA GIZARTEAN IKERTZEKO EGONALDI-BEKA, DONOSTIA ETA BARTZELONA ARTEAN

1. XEDEA

Hangar-ek, arte-ekoizpen eta ikerketarako zentroak (Bartzelona); CCCBk, kultura garaikidearen zentroak (Bartzelona); eta Tabakalerak, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak (Donostia) RACOR deialdia ireki dute, hau da, ikerketa artistiko gurutzatua egiteko egonaldia.

Ikerketa-egonaldia diziplina sortzaile guztietako eta munduko edozein herrialdetako artistentzat dago irekia, baldin eta ikerketa artistikoko proiektu bat egiten ari badira eta erabiltzen dituzten bitarteko, hizkuntza edo kontzeptuek testuinguru teknozientifikoarekin nolabaiteko lotura badute.

Aukeratutako artista edo kolektiboak **bi hilabete eta erdiz egonaldi gurutzatua egiteko beka jasoko du**, Bartzelona (Hangar eta CCB) eta Donostia (Tabakalera) artean egiteko. Hiri bakoitzean 5 asteko egonaldia egingo da.

Deialdiaren **ebazpena 2023ko maiatzean** emango da, eta **egonaldia 2023ko urrian hasiko da**. Tarte horretan zehar, hiru erakundeek (Hangar, CCCB eta Tabakalerak) plan bat sortuko dute egonaldian zehar irabazleak proiekturako behar dituen baliabideak optimizatzeko, *studio visita* planifikatzeko, eta horren interesekoak diren agente eta erakundeekin elkarrizketak antolatzeko, bai eta prozesuan zehar laguntzeko plana sortzeko ere.

2. AURKEZPENA

RACORi buruz

RACOR ikerketa artistikoaren edozein fasetan laguntza emateko Hangar, CCCB eta Tabakalerak sustatutako programa pilotua da. Hiru zentroek beren testuinguruak, sareak eta/edo zerbitzuak eskura jartzen dituzte artea, zientzia, teknologia eta gizartea bateratzen laguntzeko. Egonaldi gurutzatuekin batera ikerketarako laguntza emango da prozesu osoan zehar, ikasketa partekatua lortu ahal izateko proiektu pilotuan zehar.

Programa hau ACTS SAREaren ekimenaren parte da, zeina UOC; Bartzelonako Arte, Zientzia eta Teknologia Hub berria; Hac Te eta Fundación Daniel y Nina Carassok sustatzen duten, estatu-mailan espazio komun berria sortzeko, eta tipologia ezberdinak, baina ACTSei dagokionez amankomuneko interes eta helburuak dituzten erakunde eta proiektuen arteko elkarlanerako testuingurua ahalbidetzeko.

Zentroei buruz

Hangar ekoizpen eta ikerketa zientifikoa ahalbidetzeko baldintzak mantentzea (hau da, baldintzak sortzea, eguneratzea eta sostengatzea) helburu duen zentro bat da; izan ere, ikerketa zientifikoa, egungo debate eta beharrei erantzuna emateko gaitasuna duen espekulazio-kritikoko praktika eta forma dela ulertzen da. Hangarren aburuz, artea ezagutza sortzeko praktika da, eta, hortaz, ikerketa artistikoa eskubide osoko ikerketaren modalitatea dela defendatzen du, ezagutzak sortzeko eta ekoizteko modalitate zehatza duena. Hangarren helburua da sortzaileei ikerketa eta ekoizpen artistikoko prozesuko fase guztietan laguntzea, eta horien esku jartzea beharrezko zerbitzu eta tresnak, artistek baliabide kontzeptual, semiotiko, material eta teknikoetarako irismena izateko eta ezagutzarekin esperimendatzeko eta modu librean transferitzeko testuingurua sortzeko.

Zentroak egonaldiako ematen dituen baliabideak, Hangarreko erabilera partekatuko eskuragarritasunaren eta funtzionamenduaren arabera:

- Soft/hardware eta interakzio-laborategia
- Interfizie eta sareen laborategia
- Eraikuntza-laborategia
- Ikus-entzunezkoen ediziorako kabina
- Lan-mahaia
- Ostatua La Casetan, Hangarren programetako egoiliar eta parte-hartzaileentzako etxea. Bi pertsonentzako bi gela, komuna, egongela eta sukaldea bi solairuetako bakoitzean. Egoitzan, gehienez ere, lau artista egon daitezke aldi berean.
- Espazioak: Ricson gela, erabilera anitzeko gela, tailerren gela
- Sare garrantzitsuak: Hac Te, XarxaProd, Bartzelonako Xarxa de Fàbriques de Creació

Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroa (CCCB) probak egiteko eta sortzeko espazio bat da, mundu garaikideko tentsio-ildo nagusiei buruzko pentsamendu kritikoa sustatzen duena. Askatasun formal handiari eta diziplina anitzen konbinaketari esker, CCCBk erakusketa tematikoak lotzen ditu ikerketa-proiektuekin, elkarrizketa-ziklo eta jardunaldiekin, zinema edo literatura-zikloekin, eta bitartekaritza-gailu zabalekin. Era horretan, zentroa ireki nahi du, horren ingurumenarekin eta ekologia zabalagoekin modu aktiboan konektatzeko CCCBn, duela hamar urte, BETA ildoak garatu da: erakusketa-, sormen- eta bitartekaritza-proiektuak dira, zientzia eta humanitateak guztiz lotzen dituztenak. Lan-espazio honetatik, CCCBk artista egoiliarrei bere artxiboak eskaintzen dizkie (Arxiu CCCB eta zinema esperimentaleko Xcèntric artxiboa), beren kolaboratzaileen sareekin konektatzeko aukera, bai eta beren programazio-taldeekin programa publikoetan parte hartzeko aukera ere.

Tabakalera Donostian dagoen kultura garaikidearen nazioarteko zentro bat da, eta horrek helburua da kulturaren eta sormenaren sektoreari laguntzea, euskal gizartearen gaitasun sortzailea eta kritikoa garatzen laguntzea eta kulturarako irismena eta hartaz disfrutatzeke aukera ahalbidetzea.

Sormen-zentro gisa, Tabakaleraren helburu nagusia da talentua sortzea, sormen garaikidea sozializatzea eta kulturaren eta sormenaren sektorearen ekarpenak gainerako sektoreetara eta gizartera hurbiltzea.

Ekoizpen artistikoko zentro, gisa, Tabakalerak zenbait baliabide ditu sektore artistikoa sortzea eta profesionalizatzea sustatzeko. Horrez gain, ostatua eskaintzen duen artisten egonaldiako nazioarteko programa du, baliabide material eta teknologikoak eskaintzen dituena, bai eta sektoreko profesionalen emandako laguntza eta aholkularitza-zerbitzua ere.

Tabakaleran egonaldiak egiteko baliabideak, erabilgarritasunaren arabera:

- Irudia eta soinua editatzeko kabinak
- Argazkigintza laborategia
- Elektronika, elektrizitate eta soldadura txokoa
- Fabrikazio digitalerako txokoa
- Diseinuaren txokoa
- Laser ebakigailuaren eta beste erreminta batzuen txokoa
- Lantegi zikina
- Wetlab txokoa
- Medialaben mediatekako funtsetarako sarbidea
- Ikus-entzunezko ekipamenduetarako sarbidea
- Lan egiteko gela eta office partekatua egonaldi-gunean
- Espazioak: Platoa, Lantegi Espazioa, Z Aretoa, Patioa eta Medialab espazioak
- Ostatua One Shot Hotel Tabakalera hotelean: banakako logela bikoitza, beste egoiliar batzuekin partekatutako sukalderako eta egongelarako sarbidea duena.

OHARRA: RACOR ikerketa-beka bat da, ez ekoizpen-beka bat. Baliabideak eta zerbitzuak eskuragarri daude ikerketarako eta aholkularitzetarako.

3. HAUTAGAIK

RACOR egoitza-beka edozein diziplinatarako, generotako eta nazionalitateko artista nagusiei zuzenduta dago, baldin eta ikerketa artistikoko proiektu bat egiteko prozesuan badaude eta, beren bitartekoak, hizkuntza edo kontzeptua dela medio, testuinguru teknozientifikoarekin lotuta badute eta beren lana honako interes-arlo hauetakoren batekin lerrokatuta badago:

- Egungo ondoezak ikuspegi estruktural eta politikotik aztertzen dituzten praktikak, krisi ekologiko, ekonomiko eta sozialei dagokienez.
- Arteak, zientziak eta gizartea elkartzeko, lankidetzan aritzeko eta hibridatzeko testuinguruak proposatzen dituzten praktikak, etorkizun bidezkoagoa eta jasangarriagoa irudikatzen eta eraikitzen.
- Paradigma teknozientifikoekin ustekabeen hitz egingo duten praktikak, berrikuntza metodologikoak ekarriko dituztenak eta

ezagutza sortzeko, transmititzeko eta baliozkotzeko moduak, desberdinak eta aparatu akademikoaren osagarri direnak.

- Kode irekiko tresnak eta metodologiak zentzu zabalean erabili eta garatzen dituzten praktikak, komunitarioaren, publikoaren eta komunaren arteko elkarriketan arreta jartzen dutenak.
- Irudimenak, sentsibiltateak eta estetikak berritzeko gaitasuna duten hizkuntzak eta adierazpideak dituzten praktikak.
- Beren adierazpen-lekuarekin zintzoak diren eta pentsamendu kritikoko esparru bat eskaintzen duten praktikak.

4. IRAUPENA

Bekaren iraupena **ondoaz ondoko bi hilabete eta erdikoa da 2023ko urriaren 1etik abenduaren 15era**. Lehenengo bost asteak Donostian izango dira eta beste bost asteak Bartzelonan.

5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 1- Eskabidea PDF bakar bat bidalita aurkeztu behar da, inprimakia Tabakaleraren webgunearen bidez bete ondoren.
- 2- Hautagai bakoitza proiektu bakar batekin aurkez daiteke deialdira.
- 3- Proiektu kolektiboak aurkez daitezke, baldin eta kideetako bat ordezkari izendatzen badute.
- 4- Deitzaileek onuradunaren esku jarriko dituzte:
 - Ordainsariak: 2.500 € gordin.
 - 1.500 € gordinera arteko ikerketa/ekoizpenerako laguntza-poltsa bat, irekiera publikoen kostua barne. Horiek artistak pentsatu beharko ditu; izan ere, publikoari irekitako ikerketa-testuingurutzat hartzen dira.
 - 1.000 € gordinera arteko poltsa bidaiak egiteko.
 - 1.500 € gordineko poltsa dietetan
 - 24/7 ostatua eta lan egiteko espazioak Hangarren eta Tabakaleran, bi zentroetako baliabide guztietarako sarbidearekin.
 - Ikerketa-laguntza eta aholkularitza teknikoak.
 - Osasun-asegurua europarrak ez diren egoiliarrentzat, hala eskatzen badute.

6. KONPROMISOAK

- Proiektuaren irekiera publikoa egitea bi hirietan.
- Proiektuaren amaierako memoria bat eta egoitzari buruzko balorazio bat entregatzea, amaitu ondorengo bi hilabeteetan.
- Proiektuaren jakinarazpenean honako logotipo hauek sartzea: Fundación Daniel y Nina Carasso, Hangar, Tabakalera, CCCB, Hac Te eta UOC.

7. HAUTAKETA PROZESUA

Eskabidea PDF bakarra bidaliz egingo da (mezuaren izenburua: Beca_RACOR_IZENA_ABIZENA), Tabakaleraren webguneko inprimakiaren bidez.

Dokumentuan informazio hau jaso behar da:

- 1- Datu pertsonalak:
 - Izen-abizenak
 - Helbide osoa (hiria eta herrialdea barne)
 - Telefono-zenbakia
 - Helbide elektronikoa
 - Jaioteguna
 - Nazionalitatea
- 2- Eskatzailearen lan-ildo eta ikerketa nagusiak zehazten dituen biografia laburra (gehienez 500 karaktere, espazioak barne).
- 3- Currículum vitae (gehienez 1.500 karaktere, espazioak barne).
- 4- Proiektuaren deskribapena, honako hauek barne:
 - Proiektuaren laburpena (gehienez 2.000 karaktere, espazioak barne).
 - Helburuak (gehienez 1.000 karaktere, espazioak barne).
 - Espero diren emaitzak (gehienez 1.500 karaktere, espazioak barne).
 - Metodologia (gehienez 1.500 karaktere, espazioak barne).
 - Nola dokumentatu eta partekatuko den proiektua (gehienez 1.000 karaktere, espazioak barne).
 - Egutegia eta lanerako plana.
 - Premia teknikoak
- 5- Zehaztu zergatik egin behar den proiektua Hangar eta Tabakaleraren testuinguruan (gehienez 1.000 karaktere, espazioak barne).
- 6- Gehienez proiektuaren 5 irudi.

* GARRANTZITSUA:

- Ez dira onartuko eskatutako informazioa jasotzen ez duten eta/edo hedapen-mugak gainditzen dituzten eskabideak.
- Eskabideen edukia katalanez, gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daiteke.
- Hautaketa-batzordea aurrez hautatutako artistekin harremanetan jar daiteke elkarrizketa baterako.
- Hautaketa-batzordeak deialdia bete gabe uzteko eskubidea izango du.
- Pertsona fisikoak edo kolektiboak aurkeztu ahal izango dira deialdira. Modu kolektiboan aurkeztuz gero, ordezkari bat adierazi beharko da, eta taldeko gainerako kideek ordezkaritza-eskubideak laga beharko dizkiote pertsona horri. Nahitaezko harreman guztiak harekin egingo dira.

8. HAUTAKETA BATZORDEA

Honako hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

- Hangarreko kide bat
- Tabakalerako kidea bat
- CCCBko kide bat
- Clara Piazuelo, RACORi lotutako ikertzailea

9. HAUTESPEN IRIZPIDEAK

Hautaketa-batzordeak proiektuen balorazioa egingo du honako hauen arabera:

- Ikerketa goian deskribatutako interes-arloekin bat etortzea.
- Proiektuaren bideragarritasuna eta garapen-ahalmena.
- Proiektuaren egokitasuna, garrantzia eta interesa.
- Ibilbide artistikoa edo ikerketa-esperientzia.

10. EGUTEGIA

Eskabideak aurkezteko epea: 2023ko martxoaren 31tik apirilaren 24ra, 12:00ak arte (GMT+1).

Hautaketa-prozesuaren emaitzak: 2023ko maiatzaren hasiera

Egonaldia: Ondo ondoko bi hilabete eta erdi, 2023ko urriaren 1etik abenduaren 15era.

Hac
le

UOC Universitat Oberta
de Catalunya

HANGAR.
ORG

CaSaSo
Daniel & Nina
Fundación afiliada a la Fondation de France

CCCB Centre de Cultura
Contemporània
de Barcelona

TABAKALERA
T

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÀNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus